

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Andres Lejardi Ibaibarriaga Andy

*Ziortza-Bolibar
Bizkaia (1939)*

Aurkibidea



Biografia



Gosta baserrian jaioa, aita bertakoa zuen eta ama ere herrikoa. Zazpi senidetan bosgarrena, Andres Bolibarko eskolan ibili zen 14 urterarte eta ondoren Markinan, ajustadore ofizioa ikasten. Esperanza y Compañia tailerrean egin zuen lana lau urtean. Ondoren soldadu egon zen Bilbon eta Gasteizen, eta urte horretan aita hil zitzaien, istripuz. Anaia bat Ameriketan zeukan, Hagermanen (Idaho) artzain, eta bera ere hara joan zen 1963an. Ardi-lanetan sei urte igaro ostean, behi hiltegi batean ibili zen lanean 14 urtean, Goodingen (Idaho). Azken urteak Goodingeko gormutuen eskolan egin zituen, garbiketan, mantenimenduan eta autobus gidari. Emakume amerikar batekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuten, Cristina. Goodingeko euskal etxeko sortzaileetako bat da Andres.

Zintak

BOL-035

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-13
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com